

Bidai-Agentzien «udako ziriak» ebitatzeko gomendioak eman ditu UCEk

Banku komisioen «gehiegizko kopurua» ere salatu du elkarte honek

Urtaro honetan bidai-agentziek egiten dituzten «estafak» aintz dira Kontsumitzaileen Elkartearen (UCE) ustez. Iruzetan ugariera kontratua ez betetzea da, iturri hauen ustetan. Gai honi buruz nahiz banku-komisioei loturiko oharrak jakin erazi ditu UCEk.

LUIS KARLOS GARCIA / GASTEIZ

«Urteko egun hauetan hiritarrak pairatzen dituen azpikeria, estafa nahiz gehiegikeriak direla eta, Bidai-Agentzia batzuek egiten dituzten irregulartasunen» aurreko zenbait gomendio aditzera eman zituen atzo Kontsumitzaileen Elkarteak (UCE). Joan zen urtean 293 kexa egin zituzten zerbitzu hauetako erabiltzaileek, UCEn datuen arabera. Horietako 101 kontratua ez betetzeagatik izan ziren, 100 zerbitzuen akatsengatik eta 92 beste zenbait arrazoik eraginda.

Kexarik gehienak kontratua ez betetzeak sortu zituen elkartearen ustez. Horren arrazoiak eman zituen aditzera UCEk. «Hotel-aldaketak, 1988ko apirilaren 14ko Legeak



Udan iruzurra jasateko arriskuan gaude kontsumitzaileok.

zehazten ez dituen gaintasak, «overbooking» hoteletan, hegalaldi galdu edo aldatzea, hitzarturiko baldintzak ez dituen autobusak, ibilbideak aldatzea, bidai-gidarien profesionalitate eza eta aseguruen tipoetan sinatzen diren kontratu-baldintzak» lirake kontsumitzaileek jasan beharreko engainuak. Bidai-Agentziei buruz UCEk gomendatuko bigarren puntua honokoa da: «Kontratuko arloen irakurketa, 'letra txikia' eta aseguruen atala, alegia. Kontratuko atala da pu-

blizitatea gordetzea. Kontratua etxean utzi eta bidaiaren kopia bat eramatea. Akatsak somatzen, egoera berdinean dauden pertsonen kontaktua edukitzea. Ahal izanez gero, kexak idatzirik uztea. Ahalik eta froga gehien biltzea».

BANKU KOMISIOEN SALAKETA

UCEK, beste alde batera jo eta «zenbait bankuren ohizko praktika den mailegu-operazioetan banku-komisioa kobratzea» salatu zuen. Kopuru horiek % letik % 5era bitartean daude, eta UCEn ustez «gehien zigortzen duten bankuak baztertu beharra dago». Banku hauek BBV, Banco Central, Banesto, Banco Exterior, Santander, Banco Pastor, Sabadelleko Bankua, Barclays, Citybank, Bankinter, La Caixa, Caja Madrid eta Caja Postal dira, Kontsumitzaileen Elkartearen arabera.

Ibintzeak ez erretzeko sariak emango ditu Nafar Gobernuak

IRUÑEA

Ibintzeak erretzeari uzteko zenbait sari antolatu ditu Nafarroako Gobernuak, ingurugiroarekiko begirunea bultzatu eta paisaiaren berezko ezaugarriak mantentzen laguntzeko. Sariak sei milioi pezetaok izango dira. Sariak, gobernuak azken urtean ekintza hau baztertzeko eraman duen politikaren neurrietako bat da.

Ibintzeak erretzea, duela gutxi arte, Nafarroako suteen lehendabiziko arrazoia zen. Gaur egun baina ia ez dauka eraginik gobernuaren arabera, «gutxiago erretzen delako, eta segurtasun neurri handiagoz egiten delako». Hala ere, iharduera uztea biziki gomendatzen bada ere, hartu beharreko neurriak argitaratu ditu Na-

farroako Gobernuak. Ibintzeak, horrela, ezin izango dira erre abuztuaren 8a baino lehen Tafallatik behera dauden herrietan, eta irailaren 1a baino lehen hortik gorakoan. Debeakututa izango da erreserba naturaletik 300 metro-tako distantzia barnean erretzea, eta baita igande edota jaiegunetan egitea ere. Halaber, erakunde lokalak erretzeko egitaraua osatuko dute horretarako eta nekazariak bete beharra izango dute. Gobernuak arautegiaren arabera, arreta handia paratuko beharko dute nekazariak ibintze ez den gutzia —hau da, urbazterrak, errekek, ubideak, zuhaixkak, eta abar— ez erretzeko eta zaintzeko.

Sua ez da piztuko eguzkia atera baino lehen, eta arratsaldeko zazpietarako itzalita egon beharko du.

Kanboko eskolaurreko ikastolaren alde konzentrazioa gaur

J.L./BAIONA

Eskolaurreko ikastolako guraso, irakasle, laguntzaile eta sostengu komiteetako partaideek konzentrazio batera deitu dute gaur, Kanbon. Ikastola hau datorren ikasturterako egoitza gaberik dago eta hau salatzen du protesta gisa. Kirol zelaian elkartuko dira —igerilekuen ondoan— bertatik abiatzeko. Gero Udaletxearen aintzinean agertu nahi dute ibiltariak. Duela bi hilabete eskolaurreko ikastolako arduradunek jakin zuten Udalak ikastolaren suntsitzeko erabakia hartu zuela, etxeak beharrezko sanitare araudiak betetzen ez

dituelako. Erabaki hori jakin bezain laster, ikastolako arduradunek elkarriketak izan dituzte Kanboko auzapez den Duhart jaunarekin. Honek egin proposamenak ikastolaren beste nonbait emateko, ikastolako arduradunek ez dituzte onartzen.

Alabaina, Udalak egiten dien eskaintza da duela 22 urte Udalak berak Kanboko frontoi ondoan eraikin prefabrikatuak ematea, baina beste toki batean berreraikitzeak eta kontutuan harturik ikastolaren gain izanen direla prefabrikatu horien desgitea eta gero ber muntatzea. Arduradunek onartzen dute dauden tokian sartzera, baina bakarrik Udalak-behin betiko egoitza egoki bat eman arte.

HILDAKOAK



BIZKAIA

BILBO

Ana Delgado Calvo.

Antonia Iturralde Gorostiaga, 81 urte.

Juana Herva Blasco, 72 urte.

Trinidad Garcia Etxebarria, 69 urte.

ALGORTA

Amaia De Azaola y Zugadi, 43 urte.

Jose Goikoetxea Zabala, 73 urte.

BASAURI

Jose Maria Labarrieta Urrutikoe-

txea, 66 urte.

GERNIKA

Tomas Irazabal Iturbe, 63 urte.

IBARRANGELU

Julian Idoiaga Olaeta, 65 urte.

PORTUGALETE

Javier Barrio Olano, 49 urte.

URDUÑA

Jose Santos Liarena Manrique, 74 urte.

GIPUZKOA

DONOSTIA

Jose Muro Perez.

Francisco Bakaikoa Sanz, 78 urte.

Juan Pastor Alkain.

ASTEASU

Francisco Marquiz Ramos, 40 urte.

BEASAIN

Juana Josefa Barandiaran Imaz, 83 urte.

BERGARA

Lorenzo Lamarain Azkarate, 81 urte.

EIBAR

Lorea Aristegi Aldazabal, 57 urte.

Mercedes Albizuri Ormaetxea, 74 urte.

ERRETERIA

Alberto Carlevaris Bertojo, 71 urte.

ONATI

Maria Agirrealespeiti Astoreka.

PASAIA

Pedro Garmendia Aldabalde, 61 urte.

ARABA

GASTEIZ

Antonio Ortiz de Zarate Iñiguez de

Ziriano.

Emilio Garcia Morales, 64 urte.

Maria Carmen Gauna Romero, 77 urte.

Francisco Diaz Rodriguez, 82 urte.

NAFARROA

IRUÑEA

Matias Barber Burusko, 41 urte.

Joaquina Guinea Izuru, 97 urte.

Domingo Mina Beorlegi, 77 urte.

Pedro Maria Moya Zamora.

Daniel Ramon Cestau Fernandez,

42 urte.

Jose Gomez de Segura Etxarri, 79 urte.

ETXARRI-ARANATZ

Jose Ferdinandino Urmeneta, 27 urte.

EZKAROZE

Ricarda Miquelz Villanueva, 83 urte.

IBERO

Felix Garriz Iribarren, 71 urte.

IGARI

Justa Mendibe Iribarren, 80 urte.

IZURDIAGA

Francisco Artienda Legarra, 54 urte.

FALCES

Antonia Iñda Otxoa de Olza, 83 urte.

VALTIERRA

Emilia Aznarez Prat, 87 urte.

LAPURDI

ANGELU

Pascal Sanchez, 20 urte.

ARRANGOITZE

Isidro Martin-Montis.

DONAPALEU

Marie Therese Mercier.

SENERE

Maurice Vrillaud, 65 urte.

ZIBURU

Adrien Etxeberria, 73 urte.

Sanferminetarako dena prest



RUÑEAKO udaletxeak aitzinalde berria estrenatu zuen atzo, Sanferminak gain ganean ditugula dioten zurrumurruak baieztatzeke edo. Berrikuntza lanak zirela eta bederatzi hilabetez estalita egon ondoren, aurtengo txupinazorako bere aurpegirik dotoreena erakutsiko digu jadanik 230 urte dituen etxe honek. Zenbait temosoren beldurrak —«ez dute Sanferminetarako bukatuko; Gaztelu Plazatik bota beharko dute suziri...» uxatu egin dira jadanik. Urtero bezala (hau poza!) Udaletxe plaza gainezka egongo da uztailearen 6an, inoiz baino apainagoa.

Saharako osasun egoerari buruzko ihardunaldiak Gasteizen

L.K.G./GASTEIZ

Saharako Herriarekiko Osasun-Laguntzari buruzko I. Nazioarteko Ihardunaldiak hasi ziren Gasteizen atzo. Ihardunaldi hauek herri honetako «osasun sistema nazionalaren oinarriak zehazten» saiatzeko antolatu dira eta bihar arte iraungo dute.

Saharako Errepublikari Arabiar Demokratikoko —RASD— Osasun Ministeritzak alde aurretik adierazitako akatsei buruz ari dira ihardunaldiak, «Saharako errefuxiatuen kanpamenduen osasun egoerak etengabeko laguntza eskatzen bait du».

Gaur egun martxan dauden programak koordinatzea zuen helburu Saharako bilera erabaki zuten Gasteizko ihardunaldiak egitea, RASDeko gobernuak berak presentzia izan behar zuela ikusi zutelarik. Aipatu ministeritzaz gainera, Euskadiko RASDn Adiskideen Elkarte eta Gasteizko Udala dira bilera hauen bultzatzaileak.